



ZESATEZUE?

Lehiaketaren oinarriak :

Nola parte har daiteke lehiaketan?

1. Lehiaketan parte hartu ahal izateko mezu bat bidali beharko da hurrengo helbide elektronikora: komunikazioa@urtxintxa.eus. Bertan partaideen izen abizenak jarri, kontakturako telefono bat eta bideoaren youtubeko esteka agertuko dira.
2. Bideoa Youtubera igotzean, horrela izendatu beharko da bideoa: "ZESATEZUE?: bideoaren izenburua".
3. Bideoek minutu bateko iraupen minimoa izango dute. Facebook-en, Instagram-en, twitter-en,... bideoak partekatu daitezke, bideoa erakutsi eta jendeak parte har dezan. Beti ere, #zesatezue traola erabiliz.

Zeintzuk dira lehiaketaren baldintzak:

Bideo hauek egokiak izan daitezen, grabatu eta editatzeko jarraibide batzuk azalduko ditugu (www.urtxintxa.eus/zesatezue). Bertan, bideoen iraupena, gaia, edukiak, etab. azaltzen dira.

Hauek dira lehiaketan parte hartzeko baldintzak:

- Bideoak euskaraz izango dira.
- Lehiaketan 12-18 urte bitarteko gazteek parte hartuko dute.
- Bakarka edo taldeka aurkez daitezke.
- Bideoen iraupena gutxienez minutu batekoa izango da.
- Talde edo pertsona bakoitzak nahi adina bideo aurkez ditzake eta pertsona bakoitzak talde ezberdinetan parte har dezake.

Sariak:

Bi sari mota banatuko dira aurkezten diren bideo guztien artean. Guztira, saritan, 850€ banatuko dira.

1. Jendearen saria. Youtubeko bideoan "atsegin dut" gehien duten 2 bideoei emango zaie. 150€ ko saria jasoko du talde bakoitzak.

2. Epaimahaiak adostutako saria: 300€ eta 250€ko sariak jasoko dituzte epaimahaiak aukeratzen dituzten 2 bideoek (1. eta 2. Saria).

Epaimahaia:

Urtxintxako 3 kidek sortuko dute, euskara, heziketa eta bideogintzako alorrak baloratuko dituen taldea sortuz. Honako alorrak baloratuko dira:

- Euskararen erabilera. (euskara asko entzutea, euskararen erabilera egokia, guztiak euskaraz aritzea...)
- Bideoaren mezua/ istorioa.
- Bideoaren "kalitatea"

Lege-baldintzak:

URTXINTXA ez da materiala bidaltzean, birusak edo bestelako arrazoiak direla eta, sor daitezkeen jazoeren erantzule. Oinarri hauek onartzea nahitaezkoa da lehiaketan parte hartzeko, eta, beraz, sariak irabazi ahal izateko. Partaideren batek oinarrietan ezarritako baldintzak ez baditu betetzen, lehiaketatik kanpo geldituko da, automatikoki.

Lehiaketara aurkeztutako partaidea ez den beste egile batek beste hizkuntza batean egindako bideo baten edo bideo horretan oinarritutako lan baten itzulpen hutsak diren bideoak ez dira onartuko.

Bideoan musika erabiltzen bada, musika horren ustiapen-eskubideek lehiaketako partaidearenak behar dute izan osoki, legez eta eskusiboki. Partaidearen erantzukizuna da baldintza hori betetzea. URTXINTXA baldintza hori ez betetzeak ekar ditzakeen erantzukizunetatik libre gelditzen dira.

Egile-eskubideak:

Lehiaketara hirugarrenen jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak urratzen dituen materialik ez dutela aurkeztuko bermatu behar dute partaideek. Hortaz, partaideek hirugarrenen eskubideei buruzko arauak ez badituzte betetzen edo arau-hausteren bat egiten badute, URTXINTXA ez da horren erantzule egingo. Lehiaketako partaideari dagokio URTXINTXA ardura horretatik salbuestea.

Lehiaketako partaideek URTXINTXari uzten diote aurkeztutako bideoak ustiatzeko eskubidea non sartzen diren bideoa erabili, zabaldu, banatu, eman, publikoki komunikatu eta Internet edo bestelako ikus-entzunezko baliabide baten bidez dibulgatu, erreproduzitu eta erakusteko eskubideak. Halaber, URTXINTXA bideoa eraldatu egin dezake, muntaia laburragoak egiteko edo beste bideo batzuekin batera editatzeko. Lagapen hori dohainik eta modu ez eskusiboan egingo da, mundu osorako.

Bestalde, hautatutako eta jasotako lanak sustapenerako eta/edo hedapenerako erabiltzeko eskubidea dute antolatzaileek. Bideoak atal honetan zerrendatu ez diren xedeetarako erabiltzeko, egilearen baimena behar da. Ez dira onartuko hirugarrenen jabetza intelektualaren

edo industrialaren eskubideak urratzen dituzten bideoak. Era berean, bideoek ez dute pertsona fisiko edo juridikoen jabegoa, osotasuna edo irudi ona kaltetu behar.

Aurkeztutako bideoak ustiatzeko eskubidea lagatzeagatik, URTXINTXA eskubidea du bideoak Internet edo bestelako ikus-entzunezko baliabide baten bidez zabaltzeko edo argitaratzeko, baina ez dago horretara behartua.

Azken klausulak:

Lehiaketan parte hartzeko ezinbestekoa da klausula hauek onartzea.

Oinarrietan jasotzen ez diren gaiei dagokienez, URTXINTXAK izango du erabakitzeko eskubidea. Arazoa teknikoak direla eta ikus ezin daitezkeen bideoen erantzule ez da antolatzailea.

URTXINTXA ez da egingo beren kontrolpetik kanpo dauden, edo sareko operadore, zerbitzu-emaile bitartekari edo hirugarrenek sortutako jazoera hauen erantzule: galerak edo atzerapenak, etenaldiak, funtzionamenduaren eskuragarritasun edo jarraitutasun eza, transmisio-arazoak, informazioaren galera, iruzurra, sareko akatsak, softwarearen funtzionamendu-arazoak, sarrera-, komunikazio- edo erantzun-akatsak, lehiaketaren aldaketak eta abar.

URTXINTXA eskubidea du dokumentu ofizialen bidez (NAN, gidabaimena eta abar) lehiaketako partaideen nortasunari buruzko egiaztapenak egiteko.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak "PARTE-HARTZAILEAK" fitxategian sartuko direla aitortzen dugu. Fitxategiaren erantzulea URTXINTXA bera da, eta, nahi izanez gero, aipatutako Legean aurreikusitako sarbide-, zuzenketa-, ezeztapen- eta aurkaritzaeskubideak balia ditzakezu; horretarako, eskaera bat bidali behar duzu idazkaritza@urtxintxa.eus helbidera, NANaren kopiarekin edo nortasuna egiaztatzeko beste agiri batekin batera.

Parte-hartzaile bakoitzak lehiaketa honetan parte hartzeko eskatzen diren datu guztiak eman beharko ditu eta guraso edo tutorearen baimena izan beharko du. Parte-hartzaile bakoitzaren ardura izango da lehiaketan parte hartzeko emandako datuak egiazkoak izatea.

URTXINTXAK bere esku izango du elementu iraingarriak dauzkaten bideoak lehiaketatik kanpo uzteko aukera.